



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, “BILBOKO NAZIOARTEKO ERAKUSTAZOKA DESEGITEA ETA BILBAO EXHIBITION CENTRE ERATZEA. INSTALAKUNTZAK ERAIKITZEKO GASTUEN ANALISIA, 2005-EKO ABENDUAREN 31-RA ARTE.”

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, “Bilboko Nazioarteko Erakustazoka (BNE) desegitea eta Bilbao Exhibition Centre eratzea. Instalakuntzak eraikitzekeo gastuen analisisa, 2005eko abenduaren 31ra arte” txostena mamitu du. Txostena HKEEren Osokoaren kideen gehiengoaz onetsi dute.

Lanaren mamia Azokaren instalakuntza berriak eraikitzeak eragingo duen kostua eta hori egiteko kontratuak indarreko arautegiari egokitzen zaizkiola zehaztea izan da. Berebat, Azoka desegiteko prozesua eta BECekin bat egitea aztertu da.

BNEren Batzorde Nagusiak 1999an instalakuntzak Barakaldon Ansioko lursailera aldatzeko proiektua onetsi zuen. Eraikuntza proiektua kudeatzeko 2001eko martxoan BEC eratu zen, EA Eren Administrazio Orokorrak eta Bizkaiko Foru Aldundiak bakoitzak % 33ko partaidetza zutela eta Barakaldoko Udalak, Merkataritza Ganberak eta BNEk % 11ko partaidetza izanik.

Oinarrizko proiektuaren arabera obren hasierako aurrekontua 390 milioi eurokoa bazen ere, 520 milioi eurora igo zen 2003ko maiatzean. 2005eko abenduaren 31n 477 milioi euroko gastuak eginak ziren eta HKEEk ez dezake zehaztu zein izango den obren azken kostua 4 kontraturen likidazioagatik erreklamazioak egin baitituzte, bai BECek esleipen hartzaileei, bai hauek BEC i ere. Honez gainera, bulego-dorrearen eraikuntzak atzeraldi nabarmena dakar eta honenbestez, pentsatzekoa da azken kostua esleipen zenbatekoaz guztiz bestelakoa izango dela.

Obrak finantzatzeko guztira 400 milioi euroko zenbatekoa egin duten bi mailegu eskuratu dira eta bazkideek orain arte 162 milioi euro jarri dituzte. Honez gain, Eusko Jaurlaritzak eta BFAk beste 529 milioi euro hitzartu dituzte 2027ko urtera arte.

HKEEk 18 kontratazio espediente aztertu ditu eta horien exekuzioan hainbat arazo izan direla azaleratu da, besteak beste, exekuzioan zehar proiektuak amaitzeko beharrak bultzatuta eta baita greben ondorioz ere. Nolanahi dela ere, aurreikusitako datan inaugurazioa egiteko xedea bete da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Halaber, espedienteen kudeaketan izan diren akatsak ere azpimarratu dira, Europar Batasuneko Aldizkarian ez argitaratu izana, exekuzio kostuetan desbideraketak eta abar.

HKEEK, gainera, langileria hautatzeko prozesua izan du aztergai eta aldi baterako kontratu bidez lau langile hautatzeko ez direla berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde jakinarazi du.

Txostenak BNE desegiteko prozesuaren analisia barne hartu du, 2004ko martxoaren 31n egin zen Aparteko Batzorde Orokorrean adostu zena; halaber, ibilgetuen balioa guztira 27 milioi euroan ezarri zen.